

KONTUKANTARI 2

MENDIAN IBILTARI

KONTUKANTARI 2, Mendian ibiltari. Ikuslego familiarrarentzako antzerki kontzertua txotxongiloekin.

Iraupena 50 min.

Sinopsi laburra

***KONTUKANTARI 2-k** betiko euskal kantak eskaintzen dizkizue erritmo ezberdinetara eramanez; Txikiek ikas eta nagusiek ahaztu ez ditzaten.*

Nanu, Granu eta Kanuto txango berri bat egiteko prestatzen ari dira. Arratsalde honetan, mendi tontor gainera igo behar dute, baina aldapeko sagarraren adarraren puntan aurkituko dute loretxo bat eta...TXIST! Baxuago abestu!! Hautxo polita sehaskan dago zapi zuritan txit bero...

Sinopsi luzea

Nanu, Granu eta Kanuto txango berri bat egiteko prestatzen ari dira. Arratsalde honetan, mendi tontor gainera igo behar dute, baina aldapeko sagarraren adarraren puntan aurkituko dute loretxo bat eta...TXIST! Baxuago abestu!! Hautxo polita sehaskan dago zapi zuritan txit bero...

"Kontukantari", txotxongiloekin egindako antzerki kontzertua, herriz herri, pozez bete gaituen proiektua izan da. Honi jarraikotasuna emateko, "**Kontukantari 2, Mendian ibiltari**" sortu dugu. Oroimenean ditugun beste hamar abesti berrikusten ditugu oraingoan: Hautxo polita, Axuri beltza, Aldapeko, Ikusi mendizaleak, Loretxo bat, Baratze bat, Kolpe kolpeka, Guk euskaraz, Furra furra eta Arratsalde honetan.

Betiko euskal kantak erritmo ezberdinetara eramanez; nagusiek ahaztu ez ditzaten eta txikiek ikas ditzaten.

Laenanaranja

Laenanaranja, titiriteroa bokazioz, Bilbon sortu zen 1999an, familia antzerki kritiko-konstruktiboa eginez egunerokotasunari aurre egin ahal izateko. Hamabost urteko ibilbide honetan, umeei hurbiltzeko biderik aproposena txotxongiloak direla ikusi dugu. Txotxongilo antzerki garaikidea egiten ahalegintzen gara, arte honen historian zehar beste sortzaile askok egindako lana ahaztu gabe.

Gure ibilbidean zehar mahai txotxongiloekin egindako trilogia nabarmenduko genuke: "Lolo; 215. Eskakizuna", "Imundo; Hesi-Puskatzailea", "Ma; Tren Taupadak".

"Kontukantari", txotxongiloekin egindako antzerki kontzertua, 2014ko abenduan aurkeztu genuen lehen aldiz.

Gure azken egitasmoa "Aitzoko Handia", txotxongiloen opera izan da, Donosti 2016 eta Topic, Tolosako nazioarteko txotxongilo zentroarekin batera ekoiztua.

FITXA ARTISTIKOA

Abeslaria: Sandra Fdz. Agirre

Musikaria: Roberto Castro "Boti"

Txotxongilo eragileak: Itziar Fragua, Marta Alvarez eta Iñigo Eibar

Musika: Roberto Castro "Boti" eta David Nanclares

Testua: Mikel Pikaza eta Jon Koldo Vázquez

Dramaturgia, eszenografia, jantziak eta txotxongiloak: Laenanarananja

Argiztapen diseinua: Zigor Gorostiola

Argiztapen teknikaria: Victor Palacio

Soinu teknikariak: Felix Goxencia eta Jorge Perales

Diseinu grafikoa: Aritz Garcia

Zuzendaritza: Jon Koldo Vázquez

Ekoizpena : Mikel Pikaza

Jatorrizko ideia: **Sandra Fdez.** Agirre eta Mikel Pikaza